

ASTEARTEA

2020/05/26
8. urtea, 1.244. zenbakia
107.6 fm

www.ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 82 €

Patxi Ruizi elkartasuna adierazi diote

Ostiralean 200 pertsona
elkartu ziren preso
nafarrari babesa
emateko Tolosan // 4



JOSU ARTUTXA DORRONSORO

TOLOSALDEA NEURRIAK ARINDUZ

Atzodanik bigarren fasean da Tolosaldea; errefortzua behar duten ikasleak
eskoletara joaten hasi dira, eta bi aste barru irekiko dituzte kiroldegia // 2-3

Bigarren B mailako Laskorainek maila mantenduko du

Areto futboleko emakumezkoen taldeak lehen
denboraldia jokatu du aurten, eta hirugarren
postuan amaitu du denboraldia // 6

Federazioak esan du herri kirolaren egoera «triste» dela

Jose Inazio Saizar 'Luxarbe' Herri Kirolen
Gipuzkoako Federazioko lehendakariak azaldu
du sega dagoela egoera okerreanean // 7



1 TXINDOKIKO ITZALA

Abentura Parkea
Bi lagunentzako
bina sarrera

www.txindokikoitzala.com/eu/
info@txindokikoitzala.com
628 947 253 | 943 654 757
ABALTZISKETA

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**



harpidedun izateak badu saria zozketa

2 EKAINBERRI museoa: Kobazuloak + esperientziak

Bi lagunentzako sarrera bikoitza

www.ekainberri.com
ZESTOA
943 868811
info@ekainberri.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**



3 OSIN MASAJE ETA ESTETIKA ZENTRUA

Masajea

609447090
665754930
Hozpel kalea
ANOETA

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**





Aire zabaleko eta estalitako igerilekuek irekitzeko aukera dute, atzotik. Eskualdean, ordea, uztaiera arte itxaron beharko da horrelako irudiak ikusteko. ATARIA

Bigarren fasean sartu zen, atzo, eskualdea. Aldaketa berri horrek, berekin dakartza zenbait neurri. Herriarren egunerokoan izango du eragina, bereziki, hezkuntzan, kulturean eta kirolean.

Normaltasunera bidean

Josu Artutxa – Eneritz Maiz

Faseka bizitzera ohitu dira herri-tarrak, eta bigarren fasean sartuta, atzotik, araudi berria dago indarrean. Ordutegiei, saltokiei, taberna eta jatetxeei, hezkuntza zentroei, kirol jardueri, eta igerileku eta hondartzei eragingo die.

Hezkuntza izan da aldaketa eman duen alorretako bat, eta baita zalantza asko eragin dituenetako bat ere. Ikastetxe guztiek erabaki ezberdinak hartu dituzte. Hori bai, hasi direnetan, erre-fortzu lana behar duten ikasleak baino ez doaz klasera. Guztiek aipatu dute, ikasle gutxi izango direla gela bakoitzean eta hartu beharreko segurtasun neurriak bezet ariko direla.

Alegiako Aralar Institutuan, eskolak eta gurasoek ez hastea

erabakia bazuten ere, atzera egin, eta denbora laburra bada ere, errefortzua behar duten ikasleak bakarrik hasiko direla argitu dute, egutegi bat osatuta. Ikasleen %25 baino ez da joango klasera, hau da, hamabost ikasle baino ez dira izango. Ikasle bakoitza errefortzua behar duen ikasgaien baino ez da egongo.

Amasa-Villabonako Ernio-bea ikastetxean ere errefortzua behar dutenei laguntzeko irekiko dituzte gelako ateak. DBH4ko ikasleetan berreskurapenak dituzten ikasleak baino ez dira joango, eta azterketak egingo dituzte Organo Gorenean horrela erabakita. Hilabete amaierako ezohiko errefortzuko azterketetara ere joango dira, baina ikasle gutxi batzuk baino ez izatea aurreikusten dute.

Ibarrako Uzturpe ikastolan, aldiz, geratzen diren bi asterengatik ez hastea erabaki dute, eta orain arte egin moduan, *on line* emango dituzte klaseak.

Herrikiden atzo hasi ziren batxilergoko bigarren mailako ikasleekin. Selektibitatea prestatzen ari dira, eta ikasleek beraiek erabaki dute zein klasetara joan behar duten. Bi orduko klaseak jarri dituzte. Mailaka joango dira klaseetara batzen, eta ostegunean batxilergoko lehen mailakoak hasiko dira, baina gaindituak ez dituzte ikasgaiak prestatzeko izango dira. Aldiz, DBH4ko ikasleak ekainaren 1ean hasiko dira, eta soilik, lehen eta bigarren ebaluazioak gainditu gabe dituztenak joango dira ikastetxera.

Orixe Institutuan Organo Gorenean erabakitakoari eutsi diote. Egutegi berezia egin dute, eta astelehen eta ostegunetan aurrez aurre emango dituzte errefortzua behar dutenekin edota selektibitatea prestatzen ari direnekin klaseak. Beste egunetan, orain bezala, Internet bidez jasoko dituzte klaseak. Aldiz, lehenengo batxilergoko ikasleek edota DBH4koek etxean jarraituko

dute klaseak hartzen, eta ekainean azterketak egitera baino ez dira joango.

Laskorain ikastolan ere errefortzua behar duten ikasleak baino ez dira hasiko gaurtik aurrera. Gaur batxilerrako lehen mailakoak eta bihar bigarren mailako ikasleak joango dira. DBH4koak ekainean hastea aurreikusi dute, eta gainerako klaseak orain arte moduan etxetik jasoko dituzte.

EPARI dagokionean, Villabonako egoitza itxita izango dute, eta Tolosan baino ez dira hasi klaseekin. Hautazko moduan utzi diete ikasleei klasera joatearena, ikasle bakoitzak etxean egoera ezberdina bizi baitu. Dituzten mailen artean, bakarra baino ez da hasi aurrez aurreko klaseekin: Gradu 3 modulo 4, hau da, DBH 4ren baliokidea. Bestetik, irakasleek ekainaren 5etik aurrera ikastetxetik egin beharko dutela lana argitu dute.

Tolosalde Lanbide Heziketa Institutuaren kasuan, ez dute

aukerarik izan eta atzo hasi behar izan zuten errefortzu klaseekin. Ez dituzte ebaluaziorako kontuan hartuko, eta ikasleek ez dute nahita nahiezkoa klaseetara joatea. Besteekiko berezitasuna tailerreko orduena dute, eta hori ezin dute telelana bidez egin. Errefortzuekin ikasleak laguntzea dute helburu, eta beharra dutenen kasuan izango da. Internet bidez egin daitezkeen irakasgaiak eutsi egingo diete. Irakasleek erabaki dute zein ikasle joango den klaseetara, beti ere, joatea posible badu. Segurtasun neurriak betetzeko protokolo oso bat garatu dute ikastetxeak eta ikasleek bete dezaten.

HAUR ESKOLARIK, EZ

0-3 urteko haurrak irailera arte ez dira itzuliko haur eskoletara. Covid-19aren ondorioz, martxoaren 13tik etxean daude haurrak. Atzo Haurreskolak Partzuergoak gurasoei jakinarazi zenez, irailela bitarte ez dira itzuliko.

KIROL EREMUAK EKAINEAN

Kirol arloan ere aldaketak datoz. Estalita dauden kirol azpiegiturak ireki ahal izango dira, gehienez edukieraren %30a beteta. Goi mailako kirolariek, profesionalek eta federatuek erabili ahal izango dituzte, aurretik txanda eskatuz. Hala ere, edozein erabiltzailek izango du txanda eskatzeko aukera. Lehiatzen hastear diren kirol klubetako eta elkarte anonimoetako kirolariak elkarrekin entrenatu ahal izango dira aurrerantzean, gehienez hamalau laguneko taldeetan. Txandaka aritu beharko dute, erabiltzen den azpiegituraren edukieraren erdia gainditu gabe.

Eskualdean, hiru eremuri eragiten diete neurri horiek: Tolosako Usabal Kiroldegia eta Bera-zubi estadioari, eta Amasa-Villabonako Olaederra Kiroldegia. Hirurak ere Kirolzer enpresak kudeatzen ditu, eta Prebentzio Plana lantzen ari dira, guztiak ere, segurtasun eta osasun neurri guztiekin irekitzeko. Oraingoz, Tolosako eremuak ekainaren 15ean irekiko dituztela aurreratu dute. Olaederrari buruz ezer baieztatu ez badute ere, data horretan irekitzea aurreikusten da.

Aurreratu dutenez, hasiera batean soilik bakarkako kirola egiteko aukera izango da, oraindik ere, kontaktua duten kirolak egitea ezinezkoa delako. Halaber, aurretik hitzordua eskatuta jardungo da, eta horretarako, sistemak eta plataformak antolatzen ari dira.

Datozen egunetan enpresako zein udaletako ordezkariak irekierari buruzko argibide guztiak emango dituzte ateak zabaldu aurretik herritarrek informazio guztia izan dezaten. Hala ere, beste askoren artean, ezinbesteko lau neurri nabarmentzen dituzte Usabal Kiroldegitik: zerbitzuen edukiera gutxitzea, garbiketa eta desinfekzio neurriak maiztasunez handitzea, instalakuntza barruko igarobideen kontrola bermatzea eta norberaren segurtasunerako eta zaintzarako materiala erabiltzea.

KANPOKO IGERILEKUEN DUDA

Uda gerturatu ahala, kanpoko igerilekua irekitzea izan ohi da herritar askoren nahia. Fase berri honetan, kirola egiteko nahiz aisialdirako ireki ahal izango dira aire zabaleko eta estalitako igerilekuak, gehienez leku osoaren %30 beteta.

Usabalen, ordean, Osasun Sailak eman beharreko baimenaren zain daude. «Uda honetan kanpoko igerilekuak martxan jarri ahal izateko ahal dugun guztia



Atzo hasi ziren ikasle batzuk Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutuan tailerreko praktikekin. ATARIA



Orain irekitzeko aukera daukaten arren, aretoak ez dira ekaina bukaera arte irekiko. I. GARCIA LANDA



Bi metroko segurtasun distantzia mantendu ezin den egoeratan, nahitaezkoa da maskara erabiltzea. IRATISAZAR

egiten saiatuko gara», diote. «Hori bai, neurri asko hartu beharko ditugu zerbitzu hori modu seguruan martxan jarri ahal izateko. Guztion artean egin beharreko lana izango da». Zerbitzu hori irekitzekotan, gainera, oso neurri zorrotzak hartu beharko dituztela gogorarazi dute.

Asteasun ere badute aire zabaleko igerilekua, nahiz eta oraindik ez duten irekitzea pentsatzen. «Uztaila arte ezingo da ireki», dio Pili Legarra alkateak. «Aurre-prestaketa sakon bat egi-

tea eskatzen du. Ezarritako baldintzekin, gainera, asko mugatzen zaigu erabiltzaile kopurua».

Jakitun da zenbait neurri hartu beharko dituztela. «Eguneko sarrerak saldu ezingo direnez, urteko bonua bakarrik hartu ahalko da, eta herritarrei soilik baimenduko zaie sarrera.

Hori dela eta, galdeketa bat luzatu dute herrian «herritarrek baldintza horietan joateko prest egongo liratekeen jakiteko». Ostimira bitarte dute erantzuteko epea.

ZINEMA ARETOAK

Fase honetan hasiko dira zenbait kultur jardura eskaintzen. Eskualdean, besteak beste, Tolosako Leidor eta Amasa-Villabonako Gurea antzokiei eragiten diete neurri berriek. Tolosako Udaletik adierazi dutenez, Gipuzkoako aretoek, ekainaren 26an irekitzea adostu dute. Sanjoanak direla eta, uztailean arte atzeratuko da Leidor aretoaren irekiera. Prebentzio plan bat osatzen dabilta, itzulera ahalik eta modu seguruenean gauzatzeko.

JAKIN BEHARREKOAK

Harreman sozialak

Distantzia. Norberaren etxetik kanpo bizi direnekiko harremanetan bi metroko segurtasun distantzia gorde behar da, eta, eskuak garbitzeaz gain, distantzia hori mantendu ezin denean, maskara erabili.

Turismoa. Turismo aktiboa edo mendi bueltak gehienez hogeipertsona arteko taldeetan egin ahal izango dira, eta aldeztu aurretik antolatutako izan beharko dute.

Elkarte gastronomikoak. Ireki ahal izango dira gehienez leku osoaren %50 beteta, segurtasun neurri batzuk betetzen badira.

Bilerak. Kongresuak, topaketak, bilerak eta konferentziak baimenduta egongo dira, izan publikoak edo izan pribatuak. Horietarako aretoak prestatuko dira.

Ezkontzak. Nahi den tokian egin ahal izango dira, izan publiko edo pribatu, baina lekua erdia beteta. Aire zabalean, gehienez 100 pertsona elkartuko dira, eta, toki itxietan, 50. Segurtasun distantzia eta osasun arauak bete behar dira.

Beilatokiak. Aire zabalean 25 pertsona arte elkartu ahal izango dira; leku itxietan, berriz, gehienez 15..

Ordutegi eta mugak

Probintzia barruan. Muga geografikorik gabe mugitu ahal izango da, baita aisialdirako ere, hamabost pertsona taldeetan.

Ordutegia. Desagertu egingo dira, eta haurrek ez dute izango kalera ateratzeko ordubeteko muga.

70 urtetik gora. Jarduera fisikoa 10:00etatik 12:00etara eta 19:00etatik 20:00etara egin beharko dute. Gainontzeko herritarrei eskatu zaie hiru ordu horiek adin tarte horretan daudenentzat uzteko.

Zahar egoitzak

Bisitak. Baimenduta egongo dira aldundiak zehaztutako araudia eta egutegia betez.

Ostalaritza

Taberna eta jatetxeak. Barruan zerbitzatu ahal izango dute, gehienez lekuen %50 beteta. Lokalaren barruan soilik eserita daudenei zerbitzatuko zaie, ahal dela —jatetxetan— aurrez txanda eskatuta. Ezingo da zuzenean barran eskatu. **Eramateko.** Etxera eramateko janaria eta edaria eskatu daiteke. **Terrazak eta materiala.** Terrazek edukieraren erdia izango dute, eta mahai batean gehienez hamar pertsona elkartu ahal izango dira. Bezero bat joan eta beste bezero bat eseribitartean, bezeroek ukitu duten guztia garbitu beharko dute. Mantelak behin erabiltzekoak izango dira, eta kreditu txartel bidezko ordainketa sustatuko da.

Ruiz egonkor dago, «betiere larritasunaren barruan»

Patxi Ruiz presoari elkartasuna adierazteko manifestazioa egin zuten ostiral iluntzean, Tolosan; nafarraren konfiantzazko medikuak osasun txostena ikusi ahal izan du

Asier Imaz Tolosa

Tolosan 200 lagun inguru irten ziren ostiralean manifestazioan gose greban dagoen Patxi Ruiz presoari elkartasuna adierazteko. Bertan esan zuten nafarrak egarri greba utzi duela, baina gose greban jarraitzen duela.

Azken berrien arabera eta egin dizkioten osasun azterketen emaitzak kontuan hartuta, egonkor dago presoak, «betiere larritasunaren barruan». AEM Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduen kaleratutako azken oharren arabera, euskal preso politikoaren konfiantzazko medikua Murtzia II espetxeko sendagileekin bildu zen herenegun, eta ikusi ahal izan zuen haiek Ruizen osasun egoeraz egindako txostena.

Pasa den ostegun gauean egon zen ospitalean. Arratsaldean eskaini zioten Murcia II-ko espetxeko ardurenak ospitalera eramatea, baina uko egin zion. Ordu batzuk beranduago, ordean,



Ostiralean Tolosan manifestazioa egin zuten Ruizi elkartasuna adierazteko. A.I.

Mulako Epaitegiak igorritako auto baten ondorioz, presoak Virgen de la Arrixaca-ko ospitalera eramane zuten, «espetxearen eskariari jarraiki, bere bizitza arriskuan zegoelakoan». Ospitalean 2 litro serum sartu zizkioten, eta amaren bisita jaso ahal izan zuen. «Patxi alta boluntarioa eskatu du eta Murcia II-ko kartzelan dago berriz. Kasu honetan erizaindegian dago, kartzela kanpotik itzultzean Covid-19aren prebentziorako berrogeialdia aplikatu diotelako».

Patxi Ruizek gose eta egarri greba hasi zuen duela 16 egun. Kartzelako osasun baldintzak salatzeako protesta batean parte hartzeagatik funtzionarioek eginitako mehatxuak salatzeako abiatu zuen protesta eta egun batzuk dira jada, egarri greba bertan behera utzi, eta gose grebari eusten diola. Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Kontrako Mugimenduen gogorarazi nahi du egoerak kritikoa izaten jarraitzen duela eta presoaren ondoan jarraitzea ezinbestekoa dela.

«Egoitzetako pintaketak guztiz salagarriak dira»

Erredakzioa Amasa-Villabona

Igandean pintaketak azaldu ziren Amasa-Villabonako EAJ alderdiaren egoitzan, eta horren harira EH Bilduko udal gobernuak bere desadostasuna azaldu nahi izan du. «Alderdien egoitzetan egindako pintaketak lekuz kanpo daudela eta guztiz salagarriak dira», esan du.

«Amasa-Villabonan bizikidetzeta eta normalizazio demokratikoaren alde lanean jarraituko dugu herritarrek sufritu dituzten eta sufritzen ari diren eskubideen urraketak erabat desagertu arte», gaineratu du. Horrekin batera salatu ditu «estatuaren kar-



Villabonako EAJren egoitzan azaldutako pintaketak. ATARIA

tzela politikak euskal presoen osasun eta eskubideetan dituen ondorioak». «Politika horrek mina eta sufrimendua ekartzen jarraitzen du gure herrira», gehitu du.

Horiek horrela, «denon parte

hartzearekin eta elkarrekin» pausoak ematea beharrezkoa dela esan du udal gobernuak, eta bide horretan «memoria eta bizikidetzeta batzordearen barruan lanean jarraitzeko borondatea eta konpromisoa» berretsi du.

Ur Kontsortzioak ez ohiko neurriak onartu ditu

Helburua da herritarren zailtasun ekonomikoak arintzea, bereziki egoera ahulean dauden familienak, autonomoenak eta enpresenak

Erredakzioa Tolosa

Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren Batzorde Exekutiboak, COVID-19aren osasun larrialdiak eragin dituen ondorio ekonomikoetara aurre egiteko ezohiko neurriak hartzea erabaki du aho batez.

Iñigo Elozegi Gipuzkoako Ur Kontsortzioko Zuzendari Gerenteak esan duenez, neurrien helburua da «egoera ahulenean dauden kolektiboak eta osasun-krisiak gehien erasandako negozioak babestea, bereziki zailtasun ekonomikoak dituzten familiak, langile autonomoak eta enpresak».

Herritar guztiei zuzendutako neurriak dira onartu dituztenak eta ordaintzeko moduak erraztu eta ur-hornidura bermatzea lortu nahi dute. Horiek horrela, ur-

mozketarik ez dela egingo ziurtatu nahi dute.

Hori lortu ahal izateko, fakturen ordainketa egiteko borondatezko epea abenduaren 31 arte luzatu dute. Eta errekariguri eta interesik gabeko zatikako ordainketa egiteko erraztasunak emango dituzte.

Era berean, alarma egoerak irauten duen bitartean, ez dute ur mozketarik egingo ordainketa ezagatik.

Itxita egon diren komertzio eta ostalaritza negozioei begirako neurria ere hitzartu dute. Alarma egoeraren ondorioz itxita egon diren komertzio eta ostalaritza negozioentzat, bigarren hiru hilekoari dagokion fakturaren tarte finkoa %100 hobetsita egongo da, eta beraz, ez dute ordaindu beharko.

Ohiko jarduera Asuncionen

Erredakzioa Tolosa

Asuncion klinikan pandemia baino lehenagoko egoerara itzuli direla esan dute. Asistentzia normalizazioari ekiteko, test immunologikoak egin zaizkie klinikako langile guztiei, eta egoera berri horren aurrean nola jokatu jakinarazi zaie. Osasun-langileak dagozkien lanpostuetan birkokatu dira. Era berean, pazienteen eta osasun-langileen segurtasuna bermatzen duten zirkuituak eta denborak aurrez definitu dira.

Horiek horrela, kanpoko kontsultetarako sarrerako zirkuitu fisikoa aldatu eta behar bezala seinaleztatu dutela esan dute; zuzenean kontsulta-solairuan kokatu dira sarrera eta irteera, alboko sarrera zaharretik. Mugikortasun urriko pertsonak orain arte bezala sartuko dira. Kontsulta horietara aurrez aurre joan ahal izango da soilik lehen bisita

eta berrikuspenetarako. Gainerako kontsultak telefonoz edo bideokonferentziaz egingo dituzte. Zentrora joaten diren pazienteei arau batzuk bete beharko dituzte: puntualtasuna; lagunduta ez joatea (18 urtetik beherakoak edo mendekoak izan ezik); klinikan sartzean eskuak garbitzea; maskarekin joatea; eta distantzia soziala une oro mantentzea. Gainera, harrerako langileek tenperatura digitalki hartuko diete bai pazienteei, baita haien laguntzaileei ere.

Kanpoko kontsulten eta proba diagnostikoen eremu guztietan, garbiketa eta desinfekzio irizpideei eutsiko diete, COVID-19aren aurka ezarritako protokoloen arabera. Ospitaleratu beharra duten pazienteei PCR testa egingo zaie, ospitaleratu baino 48 ordu lehenago. Senide batekin bakarrik joan beharko dute, eta senide hori izango da bisitetara joan ahal izango dena.

Tolosatik Izaskunera oinez igotzeko ohitura oso zabalduta dago herritarren artean; bide zaharra ordea, hondatuta dago eta sastrakek estaltzen dituzte bideko gurutze eta ikur desberdinak.

Oinatz garaikideak

Izaskun Egilegor

Historian graduatua eta paisaiaren kudeaketa masterrean lizentziatua

Ibiliaren urratsaz egiten omen dira bideak, hala egin ere ondorengo hau: Tolosatik Izaskunera doan bidea, bide zaharra bezala ezagutzen dena.

Erreferentzia puntuez gidatua, puntu batetik bestera ibilbide baten eredu da. Honek batzen dituen bi gune nagusiak ibilbidean markatutako mugarriez lotuak dira. Historian zehar garapen bat izan du. Ibilbideen eredu eta oinarri da, eta kriptopaisaia ezarri da. Esparruaren banaketa baten barruan, Erromatar garaian eta Erdi Aroan adibidez, lurraldekotasuna zehazteko elementuak ziren. Aipatzekoa da, Erromatar garaian behintzat, zuinak edo ibilbideak modu sakratu batean erabili eta kokatzen zirela. Mugak zehazteko *termini* delakoak ezartzen zituzten, hauek ordea, modu simbolikoan inauguratzen ziren *signa*-k ezarriz bere oinarrian, hala nola, hautsak, ikatzak, teilak zein ontziak, beira zatiak, txanponak, karea edota igeltsua. Erromanizazioa aldaketa eta kultur arteko elkartrukean oinarritu zen garaia da. Hartara, zuinak markatzearen indigenen ohitura bat dela ondoriozta daiteke. Lurralde markatzaile gisara ezagutzen dira eta horiek era badeude gure artean.

KRISTAUTASUNA

Kristautasunak ere eredu hori hartu zuen mugarri eta ibilbideen arteko erlazioan. Gurutzearen bidea deritzonaren barruan murgiltzen da. Hamalau geldialdiz osatua dago eta kristautasunaren oinarri simbolikoan kokatu behar da, heriotzaren biderantz sufrimenduaren irudikapena litzateke.

Tolosatik Izaskungo ermitaraino doan bidean daude puntu sakratu horiek, errepide berrian. Errosarioaren hamabost misterioen bidea bestetik, bide zaharrean dago. Bidea nahiko hondatua dago eta jada gutxi batzuk bakarrik gogoratzen dira bi-




Sastrakek eta landaretzak bideko elementu asko estali dituzte. I.E.

dearekin; maiatzero errepikatzen dute, goizeko ordu txikitan. Ohiturak bizkar gainean hartuz, oraindik mantentzen diren harlanduz eginiko estela horien parada goatzeko unea izaten da maiatzean, beraz. Askorentzat paisaia barneratuta egongo da, eta ohitura eta bokazioaren parte izango da, beste askorentzat.

Berrogeialdiaz geroztik bideak bere sena jarraitu du, sastrakak inguru asko jan ditu, batez ere eguzkiak bete-betean jotzen duen inguruetan. Bitxia ordea sastraka hitzak hartzen duen konnotazioa, sastraka inguruak, moztu beharrekoak, alegia. Egongo da horrek bideari xarma berezia ematen diola pentsatzen duenik ere. Denborak naturari eskaintzen dio eskua, paisaia eraldaketa bortitzak jasanez.

1917ko maiatzean hasi ziren bide honen lehen harriak lerrokatzen, orden berezi batean jartzen, alegia. Komunikazio bide baten erabilerak geroz eta handiagoak izateko, bide hura atontzeko aukerak handitu ziren eta beraz, bide berdinetik jarraiki hauek jendeztatu egin dira, egun espaloien bidea gisara ezagutzen dena adibidez, aurretiaz zegoen bide kaskarra ordezkatzeko erakiten. 80ko hamarkadatik aurrera ordea, bidearen zenbait zati apurtu eta birmoldatu egin ziren N-1 errepidearen eraikuntza zuzenean bidearen erditik



Bide zaharra; egokitzen bat egin dute bide zaharrekin. ATARIA

igartzen baitzen. Egun dagoen bidea ezagutu arte. Bide zaharra deitzen zaio horri. Lehen harria ezarri zenetik egin bide diren birmoldaketa eta berrikuntza guztiak, eraikuntza zaharrekin nahasten dira, eta magia berezia eskaintzen diote tokiari.

BIDEAK ETA SAREAK

Bideek, ordea, sare gisa jokatzeko dute, sare sozial, politiko, ekonomiko edota biologiko gisa. 20ko hamarkadan hasi ziren ekologo, geografo zein matematikariak

sare horien inguruan planteamendu ezberdinak plazaratzen, azken finean abstrakzioan oinarritzen diren planteamenduak dira, eta guregana, zentzumen bitartez iristen dira, materialtasunak garrantzia handia duelarik horietan. Honek guztiak beraz, sare osatu batera eramaten du, atzokoaren eta gaurkoaren arteko erlazioa bilatzera. Kasu zehatz honetan ohiturak jarraituta, erlijiozko sare bat dela esan daiteke.

Izaskungo amaren kanoniza-

zioak XX. mendearen erdialdera (1949ko irailaren 11), tolosar askoren artean festa sortarazi zuen. Hala aipatzen dute garaiko agoriek. Debozioa eta Izaskungo Amaren arteko lotura espirituala areagotzea bultzatu zuen. Kanonizazioaren ondorengoak dira bai Gurutzearen bidea eta Errosarioko hamabost misterioen bidea ere. Askorentzat paisaia ezarria dagoen zerbait da Errosarioko hamabost misterioen bide hori, beste askorentzat berriz,

Ibilbideko hondatze prozesuek mende bateko arrastoak estaltzen dituzte

deboziaz osatzen den mugarri betetako bide bat. Hondatuta dago, egun, eta bertatik joatea galtzar dagoen ohitura dela esan daiteke. Hain aspaldikoa ez den garai batekoa, alegia. XX. mendeko Errosarioaren gurtzak nagusitu ziren parrokiaren kulturak Errosarioaren gurtzan oinarritzen ziren, hala egin ere herri askotako santuei begira.

Sare erlijioso horretan, Tolosatik Izaskun bitartean sortutako bideak, mugarri gisara jokatzeko dute puntuez goatzeko aukera dago, askorentzat esan modura, paisaiaren parte direnak bakarrik. Puntu zehatzak, bateratasunaren irudikapen batek azaldu ta, helmugara iristeko helburu izanik. Puntu horretan bertan, eta horrekiko gertutasuna mantenduz, hain markatuta dirauten ospakizun horien barruan, herritarren arteko premian oinarritzen dira. Birmoldaketa, edota hauekiko jabetasun bati begira, alegia. Garai bateko eta gaurko ohiturak bat egin dezaten garrantzia eman beharko litzaioke horri guztiari, ikuspuntu guztiak kontuan izanda noski. Hikamika sortu dezake, noski. Historiako gertakari guztiek bezala, ordea, gaurdaino iritsi zaigun hura da aspaldikoa. Oraina, iraganetik datorrenaren konposizioa da, eta gaurkotasuna, atzokoaren oihartzuna ez ezik, gaurkoaren oinarri dela ulertzea premiazkoa.

Denboraldi berrira begira

Datorren denboraldia prestatzeko lanetan hasi da Bigarren B mailako Laskorain taldea; klub bereko Gipuzkoako Ligako taldeak hirugarren amaitu du bere lehen denboraldian

Imanol Garcia Landa Tolosa

Laskorain areto futboleko bi talde nagusiek bukatutzat eman dute denboraldia. Bigarren B mailan lehiatzen den gizonezkoen taldeak maila mantentzea zuen helburu, eta gustura daude bete ahal izan dutelako. Emakumezkoen taldeak bere lehen denboraldia izan du, eta hirugarren egin dute sailkapenean.

Gizonezkoen taldeko kapitaina den Beñat Balerdi gustura azaldu da denboraldian lortutakoarekin: «Ligako lehen itzulia hartu dute kontuan, modu horretara talde guztiek behin behintzat elkarren aurka jokatu ta zeudelako. Une horretan berderatzigarren postuan geunden eta, beraz, mailan mantentzea lortu dugu». Balerdik garbi du Laskorainek indartsu hasi behar duela liga, lehenbailehen puntuak eskuratzeko: «Ez gara goian ibiltzeko taldeetako bat, eta, beraz, denboraldia pixka bat indartsu hastea komeni zaigu, eta kasu honetan ondo atera zaigu». Espero baino puntu gehiago lortu zituzten ligaren hasieran, eta horri eskerrak sailkapeneko postu on batean bukatu zuten lehen itzulia.

Bigarren urtea izan da Laskoraintzat Bigarren B mailan. «Eskarmentu pixka bat bagenuen, eta denboraldi honetarako zerri aurre egin behar genion bagenekien», esan du Balerdik. Denboraldia indartsu hastearen taktika horrekin puntuak pilatu zituzten, baina gero, bigarren itzuliaren hasieran ez zituzten oso emaitza onak lortu. «Partida zailenak orduan genituen, sailkapeneko goiko taldeen aurka. Baina orokorrean, ikusita jokatu ditugun partidak eta egin dugun denboraldia, gure taldearen ezaugarriekin eta jende gaztearekin, nahiko borobila izan dela esango nuke».

Etenaldiaren hasieran, ligarekin oraindik zer gertatuko zen jakin gabe, entrenatzaileak eta prestatzaile fisikoak bidalitako ariketak egiten aritu ziren, sasoi mantentzeko helburuz. Behin erabakia hartu denetik, jokalaria bakoitza bere aldetik ari da ariketa fisikoa egiten. Talde giroa



Bigarren B mailako Laskorain taldea. ATARIA



Gipuzkoako Ligako Laskorain taldea. ATARIA

ere mantendu ahal izan dute: «Taldea bat osatzeko garaian garrantzitsua da bat eginda egotea, eta bideo dei batzuk egin ditugu, behintzat elkar ikusi eta elkarrekin ariketa batzuk egiteko, elkar pixka bat zirikatu eta barre pixka bat egiteko. Jolas batzuk ere egin ditugu konfinamendua errazago eraman ahal izateko».

Aurrera begira ere jarri dira, hurrengo denboraldian pentsatzen hasi baitira. Izan ere, baja batzuk izango dituzte, bi atezain eta bi jokalaria, eta horien ordekoak topatu beharrean daude. Balerdik dioenez, «ez da erraza maila honetan jolastu nahi duen

jendea bilatzea. Nahiko konpromiso eskatzen du, bidaia luzeak askotan, eta ez da erraza jendea bilatzea eremu honetan». Bestalde, klub xumea dela gaineratu du: «Ezin dugu asko eskaini, baina saiaturako gara beste urtebetez talde lehiakor bat osatzen».

Egun planifikazioa egitea oso zaila dela gaineratu du Balerdik, ez baitakite entrenatzen noiz hasi ahal izango duten, ezta liga bera ere noiz eta nola hasiko den. Abuztuan denboraldi-aurrea hasi ohi dute, eta irailaren erdi aldean denboraldia hasten da. «Egoera berri honekin dirudien planteatzen ari dira multzo-

ak beste modu batera egitea, eta agian 20 taldeetako multzoak osatuko dituzte. Orduan, ez dakigu lehenago hasi beharko dugun, edo data berdinetan hasita balioko duen. Baina, dena airean dagoenez, zain egon beharko dugu», zehaztu du Balerdik. Birtartean, jokalaria bakoitza sasoi mantentzen saiatuko da.

ONENEAN, ETENALDIA

Egoerak hala eskatuta, liga bukatu dela azaldu du Ane Artutxa Laskorain taldeko jokalaria. Gipuzkoako Ligan lehiatzen dira eta hirugarren postua lortu dute sailkapenean. «Orokorrean ba-

lantze ona egiten dugu», esan du Artutxak. «Kontuan izan behar da lehenengo urtea dela Laskorain bezala. Talde bezala gehienak Lauburun aritzen ginen, eta aurren bi jokalaria berri etorri dira. Entrenatzailea ere berria izan da taldearentzat, nahiz eta jokalaria batzuekin harremana izan aurretik. Ezagutze prozesu hori kosta egin zitzaigun hasieran».

Urte hasiera honetan «martxa on bat» hartuta zutela eta etenaldia beraien unerik onenean iritsi zela dio Artutxak. «Emaitza hobetoak lortzen ari ginen, jokorekin aldetik askoz hobeto ari ginen, eta denboraldia ondo bukatzeko gogo geneukan». Giro aldetik «oso talde ona» dutela azaldu du, eta denboraldi honetan hasi diren bi taldekide berrientzako ez dela batera zaila izan egokitzea. «Agian joko aldetik izan da zailagoa, jokatzeko modura egokitzea. Orokorrean oso gustura aritu gara».

Konfinamenduan zehar ez dute talde bezala ezer berezirik egin entrenamenduei dagokionez. «Whatsapp bitartez komunikatzen jarraitu dugu, baina ikusten genuen denbora aurrera joan ahala bueltatzeko aukerarik ez zela egongo», esan du Artutxak.

Datorren denboraldiari begira oraindik ez dute hitz egin taldean. «Nik neuk ez dakit jarraituko dudana jokatzeko, baina oraingoz izan duguna ez da nahi duzun bukaera mota», azaldu du Artutxak. «Ez dakigu datorren denboraldian jende nahikoa izango den taldea ateratzeko, eta horrela bukatzeak pena ematen dit».

Bestalde, liga berak ere jarraitzea izateko aukera izango duen ikusi egin beharko dela gaineratu du: «Urtero uste dut ibiltzen garela ezjakintasun horrekin, liga osatzeko nahiko talde izango ote diren. Hori ere denborarekin ikusten joango garen zerbait izango da». Denboraldi honetan Gipuzkoako Ligan eskualdeko lau talde izan dira: Laskorain, Tolosala, Anoeta eta TEEP Orixe-Samaniego. «Ez dakit zer asmo izango duten talde horietan ere datorren denboraldira», zehaztu du Artutxak.

Herri Kiroletatik...

Segatik hasita, egoera triste da



JOXE ANJEL SARASOLA

Beste kiroletan gertatu den moduan, herri kirolei ere eragin die COVID-19a dela eta ezarri den alarma egoerak. Tolosaldean, esaterako, Adunan egiten den Gorostidi Harriaren Txapelketa bertan behera geratu da. Santa Kruz jaiak ez dira ospatu, ezta San Isidro Eguna ere, eta horietan eskualdeko zenbait herritan egin ohi diren saioak ez dira burutu.

Herri kirolen egoeraren berri jakiteko, Ataria Irratiko *Desafioa* saiora Jose Inazio Saizar *Luxar-be* gonbidatu genuen. Hainbat urte daramatza Herri Kirolen Gipuzkoako Federazioaren lehendakari moduan, eta bere garaian harri-jasotzaile izandakoa da. Eta ez nolanahikoa, bere pisua hiru aldiz jasotzen izan den bakarra, 66 kiloko pisuarekin 202,5 kiloko harria jaso baitzuen. Jar-duneko lehendakaria da egun *Luxar-be*, herri kirol saioez gain, bertan behera geratu baitira federazioko hauteskundeak. Berak ez duela jarraituko azaldu du: «Lekua uzteko prest nago. Urte asko daramatzat hor, pixka bat nekatuta ere banago, adina ere badut, eta azkenean meta handi samarra pilatzen da».

Herri kiroletan egoera okerrean sega ikusten du *Luxar-bek*: «Martxoan hasten gara kirolari

guztiei deitzen. Modalitate bakoitzarekin bilerak egiten ditugu, eta gero erabakiak hartu. Baina egoera berri hau etorri da eta denok ipurdia airean dugula gaude. Normalean sega izaten da aurrena, eta egoera oso beltza ikusten dut. Batik bat, aurretik baserritarrek egin behar izaten dugu, belardiak eta prestatzeko. Oraindik ez dakigunez egoera hau nola konponduko den, ez gara ezertan mugitu».

BELARDIAK PRESTATZEKO LANA

Segak, izan ere, berezitasun bat badu, belardiak prest egon behar direla saioa egiteko. «Data bat jartzen da eta baserritarrak bere ahalegina egiten du belardia prest izateko», esan du *Luxar-bek*. «Askotan patrikatik dirua galduta prestatzen du. Ez badaukazu data bat, baserritarrak bere martxa jarraitu behar du, eta horrela egin dezala». Asteasun Bulano baserriko belardietan egin ohi dira txapelketak. «Bulanokoekin, beste baserrikoekin bezala, sekulako zortea dugu. Beraiei gustatzen zaie eta eskua botatzen digute, eta aspertu egingo ginateke beraiei eskerrak ematen», gaineratu du. «Horiek ez bagenitu, nora joan? Eta horien-gana ezin dugu joan, ezer ez baitugu oraindik zehaztuta». Horrez gain, kontuan izan behar da saioetan segalariak talde bat izaten dutela ondoan, eta bertakoen parte hartzea ze baldintzetan onartuko luketen ez dagoela zehaztuta.

Harri-jasotzeari dagokionez, Gipuzkoako Harri Txikien Txapelketa Usurbilen dute programatuta, uztailaren hasierarako,



laz egindako Gipuzkoako Segalari Txapelketaren sari banaketa, Zizurkilen. Zutik, eskuinean, Jose Inazio Saizar 'Luxar-be'. A. IMAZ

Santa Isabel jaien inguruan. «Orain gutxi hitz egin genuen eta aurrera eramateko asmotan daude. Beti ere atzera ez badu egiten egoerak», esan du federazioko lehendakariak. Dirudienek, ikusle kopurua murriztu nahi dute, hau da, berez sartzen den ikusle kopuruaren herena egotea.

Usurbilen posible izan daiteke, baina Donostiako probak egitea zailagoa ikusten da. Aste Nagusian Igeldo Harria Txapelketa eta aizkorako Urrezko Kopa egiten dira. «Donostiako jaiak bertan behera geratu direla esan dute. Ez naiz egon jai batzordekoekin eta ez dakit azkenean egiteko aukerarik izango dugun ala ez», zehaztu du *Luxar-bek*. «Gai nontzeko txapelketekin ez dakit zer gertatuko den. Nik galdutzat jotzen ditut. Ea egoerak buelta ematen duen, baina ni arduratuta nago».

Hain justu, Gipuzkoako Aizkolari Txapelketa Mendaron izan

da azken urteetan eta han zegoen programatuta aurtengorako ere. 300 lagun izan ohi dira, eta hirutik bat joaten bada, 100 ikusle izango ziren. «Etxean entrenamendu bat grabatu eta erakustea bezalatsu jotzen dut. Ez diot esperantzarik kendu nahi, baina ni nahiko etsita nago, eta nire susmoa da oso txapelketa gutxi izango dela aurrean», esan du *Luxar-bek*.

KIROLARIEN DILEMA

Eta egoera honen aurrean, zer egin dezakete kirolariek? Zenbait herri kirolari ari dira prestatzeko lanak egiten, baina jakin gabe saiorik edo txapelketarik egingo den, zaila da motibazioa bilatzea. «Aizkolariak gastu ikaragarria izaten dute», esan du *Luxar-bek*, «eta gero zerbait izango den ala ez jakin gabe, egoera horretan ez dakit inork ere serio entrenatuko duenik. Herriko eta auzoko festetan izaten dira saio

eta erakustaldi asko, eta horiek hankaz gora daude. Beraz, ez daukate inongo diru iturririk, eta entrenatzeko ze pozarekin egin behar dute?».

Egoera triste da, airean daudelako saioak eta txapelketak, eta baita jaso daitezkeen diru laguntzak ere. Horixe azaldu du *Luxar-bek*: «Guk diru laguntza bat izaten dugu urtero, eta hori onartu ziguten. Baina txapelketarik ez bada egiten, atzera itzuli egin beharko dugu». Telebistatik behin ere ez dutela dirurik ikusi gaineratu du federazioko lehendakariak. «Ea nire ondorengoek asmatzen duten hori negoziatzen».

Diru laguntza gehiago eskatzean jaso izan duten erantzuna ere nabarmendu du: «Txapelketarako jasotzen dugun diru laguntzarekin ez digu ematen gastuen laurdenerako. Eta joan garerean gehiago eskatzera, herri kiroletako jendea gaizki ohituta gaudela erantzun izan digute. Behobia-Donostian korrika egiteko kirolariak ordaindu egiten duela jartzen digute segituan adibide moduan, eta orduan herri kiroletan kirolariak ez duela zertan kobratu beharrik. Horrek muturreko bat ematen dizu eta ezer egiteko gogorik gabe gelditzen zara. Baina gu egoskorragara, eta segi egin dugu».

Triste da egoera, eta baita egoeraren inguruan dagoen ezjakintasuna ere. *Luxar-bek*, behintzat, gauza bat argi du: «Zerbait dakigunean lehenbailehen pasako diegu abisua kirolariei. Ezer ez dakigun bitartean, ez dugu esperantza tontorik eman nahi».

Hilberriak eta urteurrenak



Juanma Garmendia Arandia

Eguneroko umiltasuna
amaigabeko irrifarra
beharko dira derrigor gure
bihotzetara amarra
berdin gabeko bibote horrek
ematen zizun indarra
parrillen usain onenen gisan
goruntz zoaz ttarra ttarra
eztegu utziko bela itzaltzen
zure argi ta sugarra

Anderren lagunak,
Goian Bego Juanma

BEASAINen, 2020ko maiatzaren 26an



Jagoba Aldalur Korta 'Santxo'

Atzo hil zen, 47 urte zituela

Maite huen horretan
haizean, hegan, askatasunean,
beti gogoan izango haugu.
Ez agurrik, ez adiorik,
muxu bat

Hire kuadrillie



AZPEITIAN, 2020ko maiatzaren 26an



Jagoba Aldalur Korta

Atzo hil zen, 47 urte zituela

Ez nau izutzen negu hurbilak
uda betezko beroan
badakidalako irauten duela
orainak ere geroan

Azpeitiko Ikastola Ikasberriko guraso,
langile eta ikasleek familiari elkartasuna
adierazi nahi die une zail honetan



AZPEITIAN, 2020ko maiatzaren 26an



ASTEARTEA, 2020KO MAIATZAK 26
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezera arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Edoain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:
galtzaundi, Txolarrre, berria, BERTAKO HEDABIDEAK, Tolosaldeko gizarte eragileak

ASTEARTEA 26

AGENDA

Deialdiak

Tolosa. Tolosan Euskaraldia antolatzeke bilera telematiko irekia, 18:00etan. Bilerara sartzeko esteka lortzeko: euskaraldia@galtzaundi.eus—era idatz behar da.
Tolosa. Gure Eskuk antolatutako *Gelditu. Hausnartu. Erabakisolalsaldi* digitalen barruan *Euskara: etxealditik etorkizunera* begirahitzaldia, 19:00etan. Kike Amonarriz soziolinguista eta Euskaltzaleon Topaguneko lehendakaria eta Mertxe Mujika AEK—ko kide eta koordinatzaile ohia ariko dira.
Amasa-Villabona. Kontsumo bo-noak udaletxeko erabilera anitzeko gelaren sarreran erosi ahaliko dira, 10:00etatik 19:30era. Ekainaren 30era, edo agortu arte.

Erakusketak

Tolosa. Erraldioen bildumazalea al-dizkako erakusketa Topic—en. Aste-artetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Larunbat eta igandetan, 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara.
Tolosa. Formosako Txotxongilo Antzerkia erakusketa, Topic zentroan. Ordutegia: asteartetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Larunbat eta igandetan, 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara. Taiwanek teatro tradizionala mantendu du oso modernoa den gizarte batean; tenpluekin batera txotxongiloen irudikapena egoten da txotxongiloentzako telebis-tako kanalean eta munduko txotxongiloen film estudio handle-nean.

ATARIA IRRATIA

09:00–12:00. Pasahitza. Eguraldi iragarpena Iker Ibarluzearen esku-tik, eskualdeko berriak, ekonomiari buruzko tartea Mari Jose Aranguren ekonomilariarekin eta Alain Rekon-doren telesail eta zinema gomen-dioak.
12:00. Entzuteko jaioak. Musika saioa.
16:00. Zebrabidea. Arrosa sareko magazina.
18:00. Goizeko saioen onena.

20:00. Kantazgora. Eskualdeko musikarien proposamenekin osatu-tako musika saioa.

28 KANALA

11:00. Ane Lore sukaldean
11:30. Gaurkoan Tolosalde-tik
12:00. Hiri baratzea
12:30. 1, 2, 3 Hemen da Miru!
13:30. Gaurkoan Tolosalde-tik
17:00. Adinberri
21:30. Gaurkoan Tolosalde-tik
22:00. Leihotik Begira

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. Leyre Lejeune Maet. Euskal Herria, 24. 943 67 32 74.
TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendikalea, 6. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro lasaia izango dugu. Goizean hodei dezentegertuko da zeruan, baina garrantziarik gabeko hodeiak izango dira. Egurdiatik aurrera os-tarteak irekiko dira eta arratsaldea giro nahiko eguzkitsuarekin eman-go dugu. Haizeak ipar—mendebalde-tik joko du eta tenperatura maximo-ak 20 eta 21 gradu artean joko du goia.

Bihar. Giro eguzkitsua eta epela izango dugu. Goizeko behe-lainoa desegin oste-an, giro eguzkitsua nagusituko da egun osoz, nahiz eta, uneraren batean goi—hodeiren bat edo beste ikusi eta arratsalde erditik aurrera bero—hodeiren bat garatu. Bero—hodei hauek ez dute ekaitzik utziko. Haizeak ipar—ekialdera egingo du eta tenpe-ratura maximoak nabarmen gora egingo du, 24 eta 25 gradu artean joz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Pandemiak ez ditu isilarazi erretirodunak

Elkarretaratzeei ekin diete erretirodunek, eta manifestaziorako deia luzatu diete herritarrei, «alor bakoitzak berea defendatuz»

Josu Artutxa Tolosa

Eskualdeko adineko pertsonek deituta, erretirodunek elkarretaratzeak egin zituzten atzo eguerdian, Tolosako Plaza Zaharrean eta Villabonako Berdura Plazan. «Bizitza duin baterako eskubi-dea» aldarrikatzeaz gain, larunbat batez manifestazio bat egiteko deia luzatu diete eskualde osoko herritar guztiei, «alor bakoitzak bere eskaerak defenda ditzan».

«Ekitaldi xumea bezain indartsua, sinbolikoa bezain eragin-korra». Horrela deskribatu zuten pentsionistek, atzo Tolosako Plaza Zaharrean egin zuten elkarretaratzea. Kalitatezko bizitza eta pentsio duin baten aldeko esku-bidea gauzatzea eskatzen jarraitzen dute, era guztietako aldarrikapenekin. Beharrezko segurtasun neurriak errespetatuz egin zuten agerraldia atzokoan. Minutu bateko isilunearekin hasi ziren, eta ondoren aldarrikapenerako tartea izan zuten.

«Gizartea igarotzen ari den uneak oso larriak izan arren, guk lehengo arazo berdinekin jarraitzen dugu», esan zuten. «Jasaten ari garen pandemia honen sorburua salatu nahi dugu, baita birusak eragindako hildakoak oroitu eta bere familiei elkartasuna adierazi ere. Bestetik, esker-rak eman nahi dizkiegu, zahar etxeetan, ospitaleetan nahiz etxeetan boluntario modura lan egin duten eta oraindik lanean jarraitzen dutenei. Azkenik, Osasun —eta menpekotasun— zerbitzu publikoei benetako erantzuna exijitu nahi diegu, eginda-ko zoritxarreko kudeaketaren ondorio larriak zuzentzeko».

MANIFESTAZIORAKO DEIA

Elkarretaratzeak eskualde mailan antolatzen dituzte, bertako adineko pertsonen zenbait taldek. Atzokoan, baina, proposamen berri bat jaso zuten talde



Atzo elkarretaratzea egin zuten Tolosako Plaza Zaharrean. J.A.

horiek. «Egoera larri eta gordin honetan, argi eta garbi ikusi dugu egungo sistemak zer nolako gabeziak ekarri dizkigun. Hemen, behin eta berriro elkartu garen moduan, deialdia eskualde osoko herritar guztiei zabal-tzea nahi dugu, eta ez adineko pertsonei bakarrik».

Eskualdean gauzatzea nahi duten mobilizazio orokor bat izango dela diote. «Larunbat batean manifestazio bat egitea da proposamena. Sindikatuak, alderdi politikoak, mota guztietako langileak, borrokan zeuden eta hala jarraituko duten zaharren egoitzetakoak, irakasleak, ikasleak... guztiak elkartzeko nahi dugu. Alor bakoitzak bere eskaerak defenda ditzala, pribatizazioa noraino eramaten ari diren, nola kudeatzen ari diren eta horrek zer nolako eragina duen salatzen. Hemendik aurrera lana dugu egiteko, eta ekimen hori antolatu beharko dugu». Proposamen hori mahai gainean jarri eta erabaki bat hartzeko konpromisoa adierazi dute taldeek.

«POZIK», LAN ERREFORMAREN HITZARMENAREKIN

Guztiak, baina ez dira albiste txarrak erretirodunentzat. «Tristura eta egoera mingarriak ematen ari diren aldi berean, balioan jarri behar dira beste hainbat kon-

tu, esaterako, borrokatzeak me-rezi duela eta emaitza justuak lortzeko beti borrokatu behar dela».

Izan ere, «pozik» daude Madril-en hartu den erabakiarekin, lan erreformari buruz adostutako hitzarmenarekin. «Langile klaseari azken urteetan aplikatu zaizkion murrizketa guztiak indargabetzea oso garrantzitsua da. Azken bi urteetako borrokaren eta azken greba orokorraren fruitua da hitzarmena. Erreferentzia modura hartu behar da. Horrek, ordea, ez du esan nahi lan guztia eginda dagoenik; hitzarmen hori aplikatzeko, borrokan jarraitu beharko dugu».

ASTELEHENEAN, BERRIRO

Datorren astelehenetan izango da hurrengo elkarretaratzea. Atzo bezala egingo dute, beraiantzat «garrantzitsua» delako, ekitaldiak eskatzen dituen segurtasun eta distantzia neurriak «behar bezala betetzea». Horrela, agerraldian emandako erantzuna eskertu nahi diete herritarrei». Datozen asteetan ere, ahal duten neurrian, elkarretaratzeak egiten jarraituko dutela adierazi dute, beren eskubideak defendatzeko. Gauzatuko dituzten ekitaldietan, gainera, aipatutako gaien inguruan ere hitz egin eta eztabaidatuko dute.